



KANALAK

Gure enpresa ezagutarazteko hainbat komunikazio-kanal erabiliko ditugu, esate baterako: sare sozialak (instagram, twitter, tik tok) eta emaila (bazkideei ofertak iritsiarazteko). Sare sozial desberdinetan kontuak sortuko ditugu eta han oportetarako bezeroek aukeratu ditzazketen hotel, hostel, jatetxe eta beste zerbitzuak erakutsiko ditugu; izan ere, gaur egun sare sozialak ezinbestekoak dira kontsumitzaile gazteengana hurbiltzeko eta haiek gure web orrian sartzera bultzatzeko modurik errazena da. Gainera, bezeroek beraien esperentziaren inguruko iritzia eman nahi baldin badute, bideo bat grabatu edo idatziz egonaldiaren inguruko iritzia eman ahal izango dute.

Bestalde, noizbait enpresarekin zerbitzuren bat hartu duten bezeroei email bidez oferta desberdinak edo pertsona bakoitzak eskatzen duenerako aurki ditzakegun hostel edo zerbitzu egokienaren argazkiak bidaliko dizkiegu. Bezeroek gure informazioa jaso nahi ez baldin badute, aukera izango dute deitu edo idatziz beraien harpidetza bertan behera uzteko eskaera egiteko.

Banaketa-kanala bezela, sortuko dugun web-orria erabiliko dugu. Hasieran, Espainiako hiriburuetan (Bartzelona, Valenzia, Madril, Sevilla...) eta Donostian eskaintzen dituzten zerbitzuak jarriko ditugu ikusgai eta erreserbatzeko prest. Ondoren, inguruko herrietara irekiko dugu eskaintza eta azkenik, inguruko beste herrialdeetara zabalduko dugu (Frantzia, Italia, Andorra...). Web-orrian bezeroek eskaintzen ditugun zerbitzuak ikusi ahal izango dituzte bakoitzak eskaintzen dituen gauzen deskribapen batekin batera. Web-orria atal desberdinetan banatuko dugu bezeroei behar dutena aurkitzeko erraztasuna emateko asmoarekin. Lehen atalean, bezeroek bisitatu nahi duten hiria txertatu beharko dute. Ondoren, hautaketa egitean zer zerbitzu ikusi edo jaso nahi duten aukeratu beharko dute: hotelak, hostalak, jatetxeak... Hau egin ondoren, bezeroak nahi dituen eskariak kontuan hartuta aukera batzuk emango dizkiogu.

Azkenik, zerbitzuen salmenta egiteko weborria erabiliko dugu. Bezeroek erreserbak zuzenean egingo dituzte weborritik eta eskaera hori gure enpresak zuzenean erreserbatu den hostel, jatetxe edo zerbitzua eskaintzen duen beste enpresarekin bitartekari lana egingo du. Erosketa ondo eginga dagoela ziurtatuta eta berrikusi ondoren, erreserbaren konfirmazioa eta horrekin batera informazioa bidaliko genieke bezeroei email bidez.